



## ERREGIMEN EKONOMIKOA

### Ordainsariak

Legebiltzarkideek eskubidea dute dagozkien diru-izendapenak jasotzeko hautetsiak izan direla aldarrikatu den unetik.

Legebiltzarkideentzako diru-izendapen finkoak, eta garbiak, 2016. urteari dagokionez, 14 ordainketan eta gordin-izaerarekin, ondorengoak dira:

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria	
	Hilero
Diru-izendapena	6.841,64.- €
Eusko Legebiltzarreko lehendakariordeak	
	Hilero
Diru-izendapena	5.822,52.-€
Eusko Legebiltzarreko idazkariak	
	Hilero
Diru-izendapena	5.822,52.-€
Legebiltzar-taldeen bozeramaileak	
	Hilero
Diru-izendapena	5.822,52.-€
Legebiltzarkideak	
	Hilero
Diru-izendapena	4.946,68.-€





## Antzinasuna

Zenbait erabaki jurisdikzionalaren arabera, 2003ko abendutik aurrera, administrazio publikoekin zerbitzu-harreman juridikoren bat duten legebiltzarkideek Legebiltzarreko Mahaiari eskatu ahal diote jatorrizko administrazioak onartu dien antzinasuna ordaintzeko, legebiltzarkide-izaerari eusten dioten bitartean.

2015eko abenduaren 1ean, 15 dira antzinasuna jasotzen ari diren legebiltzarkideak.

## Trantsizio-ordaina legegintzaldia amaitzeagatik

Trantsizio-ordaina oroharreko prezioko kopuru bat da, Mahaiak legegintzaldi bakoitzaren bukaeran finkatzen duena, Legebiltzarra desegitearen ondorioz baja hartzen duten legebiltzarkideei aplikatzen zaiena. Trantsizio-ordain hori atxikipen eta tributuen erregimen fiskal orokorraren mende dago.

Espresuki eskatu behar da eta, trantsizio-ordainak hartzen duen aldiari dagokionez, adierazi behar da ez dela inongo aldi baterako prestazio ekonomiko publiko zein pribaturik jasotzen. Diputazio Iraunkorreko Mahaiaren erabakia, 2012/09/25ekoa).

IX. Legegintzaldian zenbatekoa finkatzeko kontuan hartu zen Ganbera desegin zenetik legebiltzarkide berriak izendatzeko aurreikus zitekeen datara arteko aldia, 64 egun guztira. (Diputazio Iraunkorreko Mahaiaren erabakia, 2012/09/5ekoa).

IX. legegintzaldia amaitu zenean trantsizio-ordaina jaso zuten legebiltzarkideen kopurua	47
--	----

Trantsizio-ordainaren kopurua IX. legegintzaldia amaitu zenerako	10.285,18 €
--	-------------

. Trantsizio-ordaina IX. legealdia bukatzean jaso zuten legebiltzarkideen zerrenda (*Dokumentu erantsia ikusi*)

